



**EBAZPENA, 2026ko OTSAILAREN 5ekoa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-
IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ
ZUZENTZEN DEN 2026ko URTARRILAREN 29ko ERABAKIA,
IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN KONTRATUAK ESLEITZEKO
LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA.**

GERTAKARIAK

Lehenena.- 2026ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa argitaratu zen UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktoreen plazak esleitzeko. Aipatutako deialdian ondoren aipatzen diren unibertsitate barruko kodeak dituzten plazak agertzen dira:

- PADCL2-D00042-6 (deialdiko zenbakia: 36), Biokimika eta Biologia Molekularra jakintza arlokoak.
- PADCL2-D00054-14 (deialdiko zenbakia: 56) eta PADCL2-D00054-19 (deialdiko zenbakia: 14), Enpresen Antolakuntza jakintza arlokoak.
- PADCL2-D00093-19 (deialdiko zenbakia: 26) eta PADCL2-D00093-20 (deialdiko zenbakia: 25), Mikrobiologia jakintza arlokoak.
- PADCL2-D00103-19 (deialdiko zenbakia: 53), Aleman Filologia jakintza arlokoa.
- PADCL2-D00158-6 (deialdiko zenbakia: 16) eta PADCL2-D00158-14 (deialdiko zenbakia: 49), Irudigintza jakintza arlokoak.
- PADCL2-D00336-11 (deialdiko zenbakia: 18) eta PADCL2-D00336-12 (deialdiko zenbakia: 19), Kazetaritza jakintza arlokoak, eta PADCL2-D00350-18 (deialdiko zenbakia: 11), Irudigintza jakintza arlokoa.

Bigarrena.- Akatsak ikusi dira "Egin beharreko jarduerak" atalean plaza hauen kasuan: PADCL2- D00042-6, PADCL2-D00054-14, PADCL2-D00054-19, PADCL2-D00093-19, PADCL2-D00093-20, PADCL2-D00103-19, PADCL2-D00158-6, PADCL2-D00158-14, PADCL2-D00336-11, PADCL2-D00336-12 eta PADCL2-D00350-18.0}

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenena.- Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena.- Honela dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak) 109.2 artikuluan: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- PADCL2-D00042- 6 kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Nanobioteknologia» aipatzea

Bigarrena.- PADCL2-D00054-19 kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Lanaren Antolaketa eta Giza Faktorea» aipatzea; eta PADCL2-D00054-14 kodea duen plazaren kasuan, ezabatzea agertzen ziren jarduerak eta beste hauek sartzea: «Ekoizpenaren Antolakuntza».

Hirugarrena.- Zehaztea PADCL2-D00093-20 eta PADCL2-D00093-19 kodea duten plazen kasuan egin beharreko jarduerak Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Graduari dagozkiola.

Laugarrena.- PADCL2-D00103-19 kodea duen plazaren kasuan, ezabatzea jardueretan agertzen den «Aleman Akademikoa».

Bosgarrena.- PADCL2-D00158-6 kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Testuen Ilustrazioa» eta «Teknologiak eta Prozesuak» aipatzea; eta PADCL2-D00054-14 kodea duen plazaren kasuan «Diseinu Grafikoa» eta «Teknologiak eta Prozesuak».

Seigarrena.- PADCL2-D00336-11kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Informazio Generoak» eta «Erreporterismoa» aipatzea. PADCL2-D00336-12 kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Deontologia eta Hedabideak» eta «Informazioa Irratian» aipatzea.

Zazpigarrena.- PADCL2-D00350-18 kodea duen plazaren kasuan, egin beharreko jardueretan «Artea eta Teknologia III» ezabatzea, eta horren ordeztu «Artea eta Teknologia I» jartzea.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioa, 2026ko otsailaren 5a

Izpta.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA